**Idazkaritza-Kontuhartzailetza**

**2024/12/19an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA.**

**SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 19/12/2024.**

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Puri Regidor Varela
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2024ko abenduaren 19an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ezohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Alaitz Orueta Arrese eta Edorta Barandiaran García.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 19 de diciembre de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Alaitz Orueta Arrese y Edorta Barandiaran García

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2024/11/28an egindako osoko bilkurako akta onartu da. .

## 2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2024ko abenduaren 11ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 23. eta 24. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

### 3.- JARDUERA PRIBATUA EGITEKO BATERAGARRITASUN ESKAERA

Udalbatzarrak, 2023ko ekainaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen alkatea arduraldi esklusiboan aritzea karguan, 2023ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Alkatetza-kargua arduraldi esklusiboan betetzen duen pertsonak motordun-ibilgailuak konpontzeko tailer batean (REPARACIONES LENIZ C.B.) administrari jarduera pribatuan jardun nahi du, izaera marjinal eta hondarrekoarekin.

Interesdunak berak adierazi duenez, jarduera hori egiteak ez dio inolako kalterik eragingo bere eginkizunak arduraldi esklusiboan betetzeari.

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 13. artikuluan honakoa jasotzen da: "... Korporazioko kide bati arduraldi esklusiboa aitortzeko, bere karguari dagozkion zereginetara lehentasunez dedikatu beharko du kide horrek, beste okupazio marjinal batzuen kalterik gabe; eta horiek, nolanahi ere, ezin izango diote kalterik eragin korporazioan duen dedikazioari. Okupazio horiek ordainduak badira, toki-erakundearen Udalbatzarrak bateragarritasun-adierazpen formala egin beharko du"...

Horiek horrela, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako EH BILDUko 4 zinegotziek alde bozkatuta (alkateak ez du bozketan parte hartu) eta EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

<u>Lehenengoa.-</u> Kargua arduraldi esklusiboan betetzen duen Edorta Zubizarreta Alegria alkateari aitortzea aseguru-agente eta administrari jarduera pribatuan aritzeko bateragarritasuna, honako baldintza hauen pean:

1.- Lehentasunezko dedikazioa bete beharko du alkate-karguari dagozkion zereginetan, eta jarduera pribatua egiteak ezin izango dio kalterik eragin alkate-karguaren dedikazioari.

2.- Ezin izango du bere izaera publikoa argudiatu edo erabili lanbide pribatuan jardutean.

3.- Ezin izango du bere lanbidean jardun Udala lantzen ari den gaiekin lotura zuzena duten gaietan.

4.- Bere kargu publikoagatik esku hartu behar duen jardueretan ezin izango du jarduera pribaturik egin.

5.- Jarduera pribatua hondar-izaeraz gauzatu beharko da beti, eta Eskoriatzako Udaleko alkate-kargua betetzeko betebehar nagusia oztopatu gabe.

- EAJ/PNVren bozeramalearen boto azalpena.

Josu Ezkurdia: txosten juridiko bat egon arren, guk ez dugu argi ikusten gai hori, alkateak % 100eko dedikazioa izan behar duela uste baitugu. Hala ere, txostenak dioena ikusita eta gai pertsonala denez, abstenitu egingo gara.

**4.- 2025eko AURREKONTUA ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek ezagutzen dute onartu dadin Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak aurkeztutako 2025erako aurrekontu proposamena, eta alkateak hitz egiteko txanda eman du.

*Josu Ezkurdia: guk aurka bozkatu genuen batzordean, eta hemen ere aurka bozkatuko dugu hainbat arrazoirengatik. Lehenengoa da ikusten dugula oso aurrekontu urriak direla eta horiekin ezin dela guk nahiko genukeen Eskoriatza eraiki. Aurrekontuaren zatirik handiena langileen nominak eta gastu arrunta ordaintzeko erabiltzen da, 10 eurotik ia 9 horretara bideratzen dira, eta uste dugu horrekin ez dagoela aukerarik proiektuak garatzeko. Inbertsioen kapitulua oso txikia da, 100.000 euro ingurukoa bakarrik, eta horrekin ezer gutxi egin daiteke. Egia da azken urteotan BILDUk aurreko legealditik zetozen proiektuekin jarraitu eta amaitu dituela; eta hori txalotu eta baloratu egin behar da, eta horrela egiten dugu. Gure beldurra da hemendik aurrera ezer gutxi egin ahal izango dela honelako aurrekontuekin. Bestalde, eta dirulaguntzen kapituluari dagokionez, oro har ados gaude, dirulaguntza gehienak aurreko legegintzalditik datozelako, baina ez dugu ulertzen eta ez gatoz bat BILDUk kirol klubarentzako dirulaguntzari buruz egin duen planteamenduarekin, ia erdira jaitsi baita. Ehun bat haur mugitzen dituen elkarte bati gehiago lagundu behar zaiola uste dugu. Horregatik ez dugu hori elementu positibotzat ikusten. Bestalde, badira elementu positibo batzuk. Adibidez, inbertsioen kapituluan partida bat aurreikusten da San Pedron igogailua jartzeko proiektua idazteko. Horrekin ados gaude, baina ez dakigu proiektuaren aurrekontua ikusi ondoren dirurik egongo den proiektua gauzatu ahal izateko. Guk proposamen batzuk egin genituen Ogasun Batzordean, horietako batzuk gure programan zeuden eta hemen ere aipatu nahi nituzke, esaterako, Musika Eskolaren egoeraren kasua, denok dakigu oso leku txarrean dagoela, badakigu lekuz aldatzeak diru asko eskatzen duela, baina, eskatzen dugu datorren urtean behintzat kokapen berria erabaki dadila eta proiektuaren idazketa martxan jarri. Horregatik, aurka bozkatuko dugu.

* Alkatea: Josu, oso ondo dago egin duzun diskurtsoa, arau fiskalekin eta gastuaren arauarekin egoera nola dagoen azaldu zaizue. Oso ondo dago gauzak esatea, baina ondo legoke proposamenak idatziz egitea, dirua non jarri eta nondik kendu esanda. Ahoz esatea oso ondo dago, baina hobe litzateke idatziz aurkeztea.

* Mikel Luengo: Kirol kluba aipatzen duzuen bigarren urtea da jarraian, eta ez dakit zein helbururekin. Esan behar da Eskoriatzan, zorionez, 30 elkarte inguru ditugula. Denei laguntzeko gaude, bai diruz bai beste instantzia batzuen aurrean dirulaguntzak eskatzen laguntzeko, izan ere, dirulaguntza asko daude, adibidez, Aldundiak ematen duena. Eta xehetasun bat: ba al dakizue kirol elkarteak noiz jasoko duen 2023ko dirulaguntzaren bigarren epea? Hau da, zuen aurrekontuetan aurreikusten zen dirulaguntzaren % 40a? Ba, gaur, eta hori hemen gaudenok, nire inguruan, beraien atzetik ibili garelako. Ez dut zalantzan jartzen, ezta gutxiagorik ere, lan handia egiten dutela, baina urte eta erdi behar izan dute agiriak aurkezteko. Eta berriro diot,

bere lana aitortzen dut, baina errespetu pixka bat gainerako elkarteekiko eta baita udal langileekiko ere.

El debate termina poniendo de manifiesto la labor encomiable que desarrolla el club deportivo en Eskoriatza y también las dificultades que se tienen con dicho club para que, a pesar de toda la ayuda que se le presta, justifique la subvención que anualmente se le concede.

Eztabaida amaitu da agerian utziz Eskoriatza kirol elkarteak egiten duen lan txalogarria, eta baita, elkarte horrekin izaten diren zailtasunak, nahiz eta erabateko laguntza eskaini, urtero ematen zaion dirulaguntza justifika dezan.

Alkateak eta Mikel Luengok adierazi dute aurrekontuan aurreikusitako laguntza dagoena bada ere, behar izanez gero laguntzeko prest daudela.

Hitz egiteko txandak amaituta, bozketa egin da.

Bertaratutako zinegotzi guztiek bozkatuta, Udalbatzarrak, EH BILDUko 5 zinegotziek alde bozkatuta, eta bertaratutako gainerako 4 zinegotziek, EAJ/PNVkoak, aurka bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako udal aurrekontua: 6.356.067,74 €

**Bigarrena.-** 2025eko aurrekontu orokorra osatzen duen dokumentazio osoa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko hamabost egunez jendaurrean egoteko epean inolako erreklamaziorik ez balego, onarpena behin betikotzat jotzea.

## 5.- 2025eko LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ONARTZEA.

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren eztabaidatu eta bototara jarrita, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU: :

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Udalaren 2025erako lanpostu zerrenda onartzea.

**Bigarrena.-** 2025erako plantilla organikoa onartzea.

**Hirugarrena.-** Dokumentu biak jendaurrean jartzea 15 egun baliodunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita, egoki iritzitako erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin daitezen. Epe horretan inolako erreklamazio edo alegaziorik egongo ez balitz, behin-behineko erabakia behin betiko bihurtuko da Udalbatzarrak berariaz beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## 6.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratuta egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuengatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko tramitatutako espedientearen berri eman da.

Aurrez esandakoa kontuan hartuta, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

- **Preskribatuta eta baliogabetuta** egoteagatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 253,22 €.

| 24/07/01 etik 24/09/30 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IFZ | KONTZEPTUA | URTEA | LIKIDAZIOA | KUOTA | ERREKARGOA | GUZTIRA | ZERGATIA |
| B75187377 | JARDUERA ENPR. | 2019 | 39A048512220F | 211,02 | 42,20 | 253,22 | PRESKRIZIOA (4G-BAJ.PRESCR.GEA) |
| GUZTIRA | | | | 211,02 | 42,20 | 253,22 | |

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailetza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

## 7.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2024ko hirugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

## 8.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN EGINDAKO HITZARMENAREN ERAGIN EKONOMIKOAK ALDI BATERAKO LUZATZEA.

Udalbatzarrak 2022ko otsailaren 22an erabaki zuen Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko lankidetza-hitzarmena formalizatzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Aipatutako hitzarmenaren hamalaugarren baldintzan aurreikusitakoaren arabera, sinatu zen egunean indarrean jarri bazen ere, 2021eko urriaren 1etik aurrera izan zituen ondorio ekonomikoak, eta 2023ko abenduaren 31ra arte egon zen indarrean. Era berean, aurreikusi zen indarraldiaren amaieran berariaz luzatu ahal izango zela hitzarmena urte natural baterako. Hitzarmenaren iraupena, luzapenak barne, ezin izango da lau urtetik gorakoa izan, arauz epe luzeagoa aurreikusten ez bada.

2023/12/21eko erabakiz, urte natural batez luzatu zen, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Luzapena amaitzeko data hurbil dagoenez, Foru Aldundiak hitzarmen horren ondorio ekonomikoak beste bederatzi hilabetez luzatzea proposatu du, hau da, 2025eko irailaren 30era arte.

Gaia Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzailean aztertu ondoren, eta egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmena bederatzi hilabetez LUZATZEA, 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari luzapena sinatzeko ahalmena ematea.

## 9.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:13an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza
EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA
2025/02/0410:23:22

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza kontuhartzailetza
MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2025/02/0410:20:35

## 1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 28/11/2024 .

## 2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 11 de diciembre de 2024.

A su vez, se da cuenta de forma expresa de las resoluciones por las que se aprueban los expedientes de modificación de créditos Nº 23 y Nº 24.

## 3.- SOLICITUD DE COMPATIBILIDAD PARA EJERCICIO DE ACTIVIDAD PRIVADA

Considerando que el Pleno del Ayuntamiento, en sesión de fecha 27 de junio de 2023, adoptó el acuerdo de que el Alcalde desempeñase el cargo en régimen de dedicación exclusiva con efectos desde fecha 1 de julio de 2023

Considerando que la persona que ocupa el cargo de la alcaldía en régimen de dedicación exclusiva desea ejercer, con carácter marginal y residual, la actividad privada de administrativo en un taller de reparación de vehículos a motor (REPARACIONES LENIZ C.B.)

Vista que, según declara el propio interesado, el ejercicio de dicha actividad no supone ningún menoscabo en el ejercicio de sus funciones en régimen de dedicación exclusiva.

Considerando lo previsto en el art. 13 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales: "… *El reconocimiento de la dedicación exclusiva a un miembro de la Corporación exigirá la dedicación preferente del mismo a las tareas propias de su cargo, sin perjuicio de otras ocupaciones marginales que, en cualquier caso, no podrán causar detrimento a su dedicación a la Corporación. En el caso de que tales ocupaciones sean remuneradas, se requerirá una declaración formal de compatibilidad por parte del Pleno de la entidad local*"….

Por lo anteriormente expuesto, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, y con el voto favorable de 4 concejales presentes de EH BILDU (el alcalde no participa en la votación) y la abstención de los 4 concejales de EAJ/PNV , el Pleno ACUERDA:

Primero: Reconocer a favor del Alcalde Edorta Zubizarreta Alegría, que ejerce su cargo en régimen de dedicación exclusiva, la compatibilidad para el ejercicio de la actividad privada de administrativo en un taller de reparación de vehículos a motor (REPARACIONES LENIZ C.B.) con sujeción a las siguientes condiciones:

1ª. Deberá ejercer la dedicación preferente a las tareas propias del cargo de Alcalde , no pudiendo el ejercicio de la actividad privada originar detrimento a su dedicación a la corporación.

2ª. No podrá invocar o hacer uso de la condición pública en el ejercicio de la profesión privada.

3ª. No podrá ejercer la profesión en aquellos asuntos que se relacionen directamente con las que desarrolla el ayuntamiento.

4ª. No podrá desempeñar actividades privadas en las que tengan que intervenir por razón de su cargo público.

5ª El ejercicio de la actividad privada deberá será en todo momento con carácter residual y sin que interfieran con la obligación principal del ejercicio del cargo de Alcalde del Ayuntamiento de Eskoriatza.

- Explicación de voto por parte del portavoz de EAJ/PNV

Josu Ezkurdia: A pesar de obrar un informa jurídico, nosotros no vemos claro este tema porque creemos que el alcalde ha de tener una dedicación del 100%. No obstante, viendo lo que dice el informe y de que se trata de un asunto personal, nos abstenemos.

## 4.- APROBACION DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2025

Siendo conocido por todos los corporativos presentes la propuesta de Presupuesto 2024 que para su aprobación se eleva desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el Alcalde abre el turnos de intervenciones.

*Josu Ezkurdia: Nosotros votamos en contra en la comisión, y aquí también votaremos en contra por varias razones. La primera es que vemos que son unos presupuestos muy excasos y con los que no se puede construir el Eskoriatza que nosotros desearíamos. La mayor parte del presupuesto se destina a pagar nóminas de los trabajadores y gasto corriente, de 10 euros casi 9 se dedican a ello, y pensamos que con ello no se da oportunidad para desarrollar proyectos. El capítulo de inversiones es muy pequeño, solo de unos 100.000 euros, y con eso poco se puede hacer. Es verdad que en los últimos años lo que BILDU ha hecho es seguir y terminar los proyectos que venían de la anterior legislatura; y eso es de aplaudir y valorar, y así lo hacemos. Nuestro miedo es que de aquí en adelante poco se podrá hacer con presupuestos como este. Por otro lado, y en relación al capítulo de subvenciones, que en general estamos de acuerdo, porque además la mayoría de las subvenciones vienen de la anterior legislatura, lo que no entendemos y no compartimos es el planteamiento de BILDU respecto a la subvención para el club deportivo, que se reduce casi a la mitad. Creemos que hay que ayudar más a una asociación que mueve un centenar de niños y niñas. Por eso no vemos ese un elemento positivo. Por otro lado, si hay algunos elementos positivos. Por ejemplo, en el capítulo de inversiones se contempla una partida para redactar el proyecto de instalación de un ascensor en San Pedro. Con eso estamos de acuerdo, pero no sabemos si una vez visto el presupuesto del proyecto habrá dinero para poder materializarlo. Nosotros ya hicimos algunas propuesta en la Comisión de Hacienda, algunos estaban en nuestro programa y también quisiera mencionarlas aquí. Es el caso de la situación de Musika Eskola, todos sabemos que está en muy mal sitio, sabemos que su reubicación exige mucho dinero, pero pedíamos que al menos el año que viene se resolviese su nueva ubicación y se pusiera en marcha la redacción del proyecto. Por eso, vamos a votar en contra.

*Alcalde: Josu, está muy bien el discurso que has hecho, se os ha explicado como está la situación con las reglas fiscales, con la regla del gasto. Está muy bien decir las cosas, pero estaría también bien hacer por escrito las propuestas planteando dónde poner y de dónde quitar. Decir oralmente está muy bien, pero estaría mejor presentar por escrito.

*Mikel Luengo: Es el segundo año consecutivo que mencionáis al club deportivo, y no se con qué objetivo. Decir que en Eskoriatza, por fortuna, tenemos cerca de 30 asociaciones. Estamos

para apoyar a todas, para ayudarles tanto económicamente como para ayudarles a pedir subvenciones ante otras instancias, porque hay muchas subvenciones, como por ejemplo la que concede la Diputación. Y un detalle, ¿ sabéis cuándo va a recibir el segundo plazo de la subvención de 2023? Esto es, el 40% de la subvención que se preveía en vuestros presupuestos. Pues hoy, y eso porque los que estamos aquí, alrededor mío, hemos andado por detrás. No pongo en duda, ni mucho menos, en que hacen un gran trabajo, pero han tardado un año y medio. Y repito, reconozco su labor, pero un poco de respeto hacia el resto de asociaciones y también a los trabajadores del ayuntamiento.

El debate termina poniendo de manifiesto la labor encomiable que desarrolla el club deportivo en Eskoriatza y también las dificultades que se tienen con dicho club para que, a pesar de toda la ayuda que se le presta, justifique la subvención que anualmente se le concede.

El Acalde y Mikel Luengo manifiestan que, si bien la ayuda prevista en el presupuesto es la que es, están en plena disposición de ayudar si se ve que hace falta.

Terminadas todas la intervenciones se procede a votar.

Emitido el voto por todos los corporativos presentes, el Pleno, con el voto a favor de los 5 concejales de EHBILDU y el voto en contra de los 4 concejales restantes presentes de EAJ/PNV , ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar inicialmente el Presupuesto municipal por importe de 6.356.067,74 €

**Segundo.-** Aprobar inicialmente toda la documentación que integra el Presupuesto General para 2025, de conformidad con lo establecido en el art. 445 del Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1986, del 15 de abril.

**Tercero.-** Entender elevada a definitiva su aprobación en el caso de que no se produjera reclamación alguna en el periodo de exposición pública, a los efectos de admitir reclamaciones y sugerencias, de quince días

## 5.- APROBACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO Y PLANTILLA PARA 2025.

Sometida a debate y votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, con el voto a favor de todos los concejales presente, el Pleno ACUERDA :

**Primero:** Aprobar la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Eskoriatza para el año 2025 .

**Segundo:** Aprobar la plantilla orgánica para 2025

**Tercero:** Someter ambos documentos a información pública por un periodo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas. En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o alegación, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

## 6.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS

Dada cuenta del expediente tramitado para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas

Con base a cuanto antecede y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

- Baja de derechos pendientes de cobro **por prescripción y anulación**: 253,22 €.

| 24/07/01 etik 24/09/30 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IFZ** | **KONTZEPTUA** | **URTEA** | **LIKIDAZIOA** | **KUOTA** | **ERREKARGOA** | **GUZTIRA** | **ZERGATIA** |
| B75187377 | JARDUERA ENPR. | 2019 | 39A048512220F | 211,02 | 42,20 | 253,22 | PRESKRIZIOA (4G-BAJ.PRESCR.GEA) |
| **GUZTIRA** | | | | **211,02** | **42,20** | **253,22** | |

**SEGUNDO.-** Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

## 7.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales).

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al tercer trimestre de 2024.

El Pleno, con la asistencia de 9 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**8.- AMPLIACIÓN TEMPORAL DE LOS EFECTOS ECONÓMICOS DEL CONVENIO FORMALIZADO CON LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA PARA LA FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO**

Con fecha 22 de febrero de 2022 el Pleno del Ayuntamiento acordó formalizar con la Diputación Foral de Gipuzkoa un convenio de colaboración para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

De conformidad con lo previsto en la cláusula decimocuarta del citado convenio, si bien entró en vigor el día de su firma, surtió efectos económicos desde el 1 de octubre de 2021 y su vigencia se extendió hasta el 31 de diciembre de 2023. Asimismo, se contempló que dicho convenio podría ser prorrogado de forma expresa a su finalización por período de un año natural. La duración máxima del convenio y sus prórrogas no podrá ser superior a cuatro años salvo que normativamente se previera un plazo superior.

Por acuerdo de fecha 21/12/2023 quedó prorrogado por un año natural, desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2024.

Estando próxima la fecha de finalización de la prórroga, desde la Diputación Foral se propone alargar los efectos económicos de dicho convenio durante nueve meses más, esto es, hasta al 30 de setiembre de 2025.

Tratado el asunto en el seno de la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes y de conformidad con la propuesta elevada, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

**Primero:** PRORROGAR por nueve meses , desde el 1 de enero al 30 de setiembre de 2025, el convenio formalizado con la Diputación Foral de Gipuzkoa para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

**Segundo:** Facultar al Alcalde-Presidente para la firma del documento de prórroga.

## 9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:13 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**